# lezamabizirik

herri aldizkaria +++ 2016

## 2006 PTP HONI EZ ...
## 2016 PGOU HONI EZ!



www.lezamabizirik.com // lezamabizirik@lezamabizirik.com

# EL AYUNTAMIENTO CORRE CON LA SECTORIZACION, PARA IMPONER SIN DEBATE LA GASOLINERA.

El Ayuntamiento de Lezama ha iniciado los trámites del Plan de Sectorización de las tierras de alto valor natural de Kurutze que sin embargo calificó como urbanizables para la industria en el PGOU.

Como viene siendo costumbre el Ayuntamiento ha iniciado el trámite de forma calamitosa. Ha redactado el plan totalmente a espaldas de vecinos y asociaciones, ha presentado un documento en Diputación con errores de bulto que le obligan a entregar simultáneamente otro documento con correcciones, ha informado a la Diputación de un Plan de Participación que nadie conoce y ha tenido el valor de citar a las asociaciones "participantes" en ese plan cuando estas no han tenido ninguna información al respecto...

Una tras otra. El buen rollito y la mejora en la comunicación con vecinos, vecinas y asociaciones, que al parecer este gobierno municipal se esfuerza en trasmitir cuando se habla de fiestas o jornadas lúdicas, y que a Lezama Bizirik le parecen muy bien, se quedan sin embargo en mero postureo cuando se abordan temas urbanísticos o económicos, verdaderamente importantes en la definición del modelo de pueblo que queremos. En estos temas la actitud de quienes mandan en el Ayuntamiento desde hace décadas no se ha movido un milímetro: Oscurantismo, imposición y, en nuestra opinión, planes y proyectos que buscan más favorecer a determinados intereses y personas que buscar el bien común o el interés general.

Este Plan de Sectorización responde a ese mismo esquema y lo han presentado tan mal y con tanta premura seguramente por la amenaza que supone el Convenio Urbanístico que en septiembre del 2013 firmó la entonces alcaldesa con la empresa que quiere instalar la gasolinera a pesar de que entonces ese suelo era rural. Ese Convenio, tal y como informó la secretaría-interventora municipal, quizás no tenga validez legal pero puede comprometer económicamente al Ayuntamiento en caso de que el proyecto de la gasolinera no se acabe haciendo.

El Plan de Sectorización es el trámite urbanístico previo necesario para poder urbanizar... en este caso para poder instalar la gran gasolinera, para que, como dijimos en su día, algunos puedan ganar mucho dinero a costa de que el pueblo de Lezama perjudique gravemente el valor natural de su tierra y sus vecinos y vecinas tengan más contaminado su entorno.

Lezama Bizirik, dando voz a una Acción Popular de una cincuentena de vecinos y vecinas que esperamos que sean cada día más, ya presentó un recurso judicial al PGOU porque su anulación abriría la posibilidad de planificar un futuro mejor para Lezama. En consecuencia, ya que este Plan de Sectorización de Kurutze no es más que un hijo del PGOU, vamos a esforzarnos en que no prospere y ya le hemos dicho a la Diputación que no deberían continuar los trámites hasta no conocer el resultado del recurso al PGOU.

Sería una verdadera calamidad que corran a poner una gasolinera que nos va a contaminar y que, cuando el daño a la tierra sea irreversible, se produzca la anulación del PGOU. Vamos a trabajar para que eso no se produzca, pidiendo la participación y la toma de postura del pueblo de Lezama, a pesar, y bien que lo sentimos, de la dinámica contraria que sigue manteniendo el Ayuntamiento.

# LEZAMAKO HERRI IBILBIDEAK AURRERA




2006an hainbat lezamar, aspertuta oinez zein karraderaz errepidearen bazterretik ibiltzearekin, elkartu ginen eta antzinako hainbat auzo eta mendi bide errekuperatzea eta mantentzea erabaki genuen. Horretarako kontaktuan jarri ginen Udala eta herriko kultur eta kirol elkarte guztiekin. Horietatik Lezama Bizirik Auzo Elkarteak, Zorrizketan Euskara Elkarteak, Basobaltz eta Goitioltza Jai Batzordeek, Oxangoiti Kultur Elkarteak, Ekidazu Abesbatzak eta Gurasoen Elkarteak bat egin zuten ekimenarekin.

Auzolanean hainbat bide errekuperatu zen, baina egindakoaren mantenimendua zein hobekuntzak egiteko, borondateaz gain, dirua ere behar zen. Babes ofizialik ez zen lortu eta hori izan zen Lezamako Mugetatik abian ipintzeko arrazoietako bat. 2006ko irailaren 2an lehen mendi martxa egin zen, eta ordutik hona, urtero, era guztietako ibilbideak zabaldu egin dira, mantendu egin dira, baita ezagutzera eman ere.

2009an beste urrats bat eman genuen eta aipatutako elkarteen laguntzaz, eta administrazioaren laguntzarik gabe, aldizkari bat atera zen, 4 ibilbide laburren deskribapenarekin: Elorria 5,8km., Torrea 5,5km., Legina 5,6 km., eta Basabilbaso 6,3 km. Aldizkaria, doan, Lezamako denda, eskola eta tabernetan banatu zen. Aldizkariak harrera ona izan zuen eta, agian, batzuek oraindik ere etxean izango duzue.

2016an, Gailur mendi elkartearen 25. urteurrenaren testuinguruan, berriz ere martxan jarri da Lezamako auzo-bideen proiektua. Hainbat bileraren ondoren esan dezakegu akordioa dagoela Udala, Mugetatik, Zorribike eta Gailurren artean, berriro ere auzolanean, orain dela 10 urte hasi genuen lanari jarraipena eta sendotasuna emateko. Horretarako Elorria eta Torreko ibilbideak bide ofizialak izateko tramiteak hasi dira. Hori dela eta dagokien erakundeetan eskatu behar da 2 ibilbide horiek bide laburren (PR- Pequeño Recorrido) katalogoan erregistratzea eta hainbat ardura onartzea, besteak beste: bideen garbiketa, seinalizazioa, panelak jarri, informazioa zabaldu… Horretaz gain beste 2 ibilbide ere zehaztu, garbitu, markatu eta ezagutaraziko dira: bat Basilbasokoa, eta bestea, luzeagoa, Gangurengo tontorraraino ailegatzen dena. Azken horien lanak aurreratu nahi dira eta datorren urtean erregistratzeko eskaera egin.

Lezama Bizirik-ek akordioa txalotzen du eta beste herriko elkarteetara ere zabaltzea interesgarria litzatekeela pentsatzen dugu, batez ere izaera edo helburu kulturalak dituztenetara. Amaitzeko, gure aldetik, prest gaude parte hartu eta behar den guztian laguntzeko.

# GUTUNA LEZAMA BIZIRIK AUZO ELKARTEARI

Hamar urte jada Lezaman elkarte hau sortu zela; herritarron artean bazegoen zabaldurik halako desilusio sentsazio bat, Lezamarekiko erabaki garrantzitsuak hartzea gutxi batzuen esku zeudelako.

Lezamaren lurralde-antolamendua, goitik ezarritako PTPa, pilpilean zeuden gaiak izanik, lezamarren kezka areagotu zuten, auzo elkartea sortzearen beharrizana gauzatzeraino. Elkarte gaztetxoaren efikaziari buruzko hasierako zalantzak ez ziren makalak izan: zer egin goitik planifikatuta datozen erabakiei aurre egiteko, desegokiak direla baloratzen denean?

Boletinak argitaratu, errekurtsoak HAPOari, pankartak, urteetan tinko mantentzen diren “PTP honi EZ” iragarkiak; ematen du zerbaiterako balio izan duela egindako lanak; zabaldu denez alkatea bera ere PTP honen aurka ei dago; berandu bada ere konturatu dira Lezamarentzat inbasio zapaltzailea litzatekeela?

Lurralde antolamendua dela eta iritzi ezberdinak azaltzea ongarria dela uste dugunez, estimatzekoa da Lezama Bizirik-en jarduera, bere jokabidea arrazoitzen duelako, eta sasoi baten lortu ezinezkotzat geneukana lortzen ari delako.

Ni poztuten naiz, tiro zelaian berun kutsadura eta akustikoa paralizatua izan delako, espero dut **“PTP honi EZ”** indar gehiagoz ekitea, eta lurraren planeamenduan atzoko, gaurko eta biharko Lezama eta lezamarrak kontuan izatea eta ez gutxi batzuren interesak.

Ibilbide honetan ziurra da, aurrerarantza ere izango dela Lezama Bizirik-en partaidetza. Gure esku, lezamarron esku, beharko litzateke egon gure herriaren nortasuna (lezamartasuna) eraikitzea.

**Lezamarra**




